

**ERABAKIA, 2022ko OTSAILAREN 14koa, EUSKARA, KULTURA ETA NAZIOARTEKOTZEAREN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, UPV/EHUko IRAKASLE-IKERTZAILEEK (IRI) ETA ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEEK (AZP) ERASMUS+ MUGIKORTASUN PROGRAMAN PARTE HARTZEKO OINARRIAK ONARTZEKO DENA.**

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordearen deialdi honek ezartzen ditu laguntzak esleitzeko prozedura eta Erasmus+ programaren barruan irakaskuntza eta formakuntza helburu dituen mugikortasuna egiteko dauden baldintzak, kontuan hartuta Europar Batzordeak Hezkuntza Nazioartekotzeko Zerbitzu Espainiarraren bidez (SEPIE) emandako jarraibideak.

Kontuan hartuta 395721K131 organikoari lotutako diru-laguntza kontratuko Europako funtsetatik datorren kreditua egon badagoela, eta ditudan eskumenen babesean, hauxe

**ERABAKI DUT:**

**Lehenengoa:** UPV/EHUko irakasle-ikertzaileei eta administrazio eta zerbitzuetako langileei zuzendutako Erasmus+ mugikortasun deialdiaren oinarriak onartu eta argitara ematea.

**Bigarrena:** Azkenean eskainiko den plaza kopurua SEPIEren behin betiko onspenaren arabera izango da.

**Hirugarrena:** Administrazio bideari amaiera emango dion erabaki honen kontra egiteko bide hauek erabil daitezke, baina inola ere ez aldi berean:

- Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioko erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, jakinarazpena jasotzeko epearen hurrengo egunetik kontatzen hasita. Administrazio errekurtso hori jarriz gero, eta errekurtsoa jarri eta hilabeteko epean erabaki espresurik jaso ezean, errekurtsoa ezetsizat jo dela ulertuko da. Horrela gertatuz gero, beheago agertzen den b) letrako auzibidera jotzeko aukera egongo da. Presuntziozko ezespena gertatuz gero, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, presuntziozko ezespena gertatu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita (29/1998 Legea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioarena, 46. artikulua).
- Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita (29/1998 Legea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioarena, 8.6 eta 46. artikulua).

## OINARRIAK

### 1. Deialdiaren helburua

#### 1.1. Irakaskuntza helburu duen mugikortasuna (IRIentzat)

Deialdi honen helburua da laguntza ekonomikoak ematea Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle-ikertzaileei, irakaskuntza eman dezaten Erasmus+ programari atxikitako goi mailako hezkuntzako erakundeetan 2021/2022 eta 2022/2023 ikasturteetan zehar.

Ekintza hau bat dator 1987. urteaz geroztik irakasleen mugikortasunerako aurrera eramaten den deialdiarekin, zeinaren helburu nagusia den irakaskuntza ematea Europako beste unibertsitate batean. Alde biek Erasmus hitzarmen bat sinatzen dute horretarako eta, irakaskuntza emateaz gain, beste jarduera batzuk ere egin ahal dira.

Egonaldian emango den irakaskuntza izan behar da helburuko erakundearen gradu edo graduondoko titulu ofizial bat lortzera bideratutako ikasketa programa batekoa, eta hala jaso beharko da irakaskuntzarako mugikortasun akordioan (*Mobility Agreement*), erakunde biek adostu beharko dutena aldez aurretik.

Ekintza honek helburu hauek ditu:

- Garapen profesional eta pertsonalerako aukerak eskaintzea UPV/EHUko IRIei.
- Hizkuntza trebetasuna hobetzea hirugarren hizkuntza batean.
- Mugikortasun programetan parte hartzerik ez duten helmugako unibertsitateetako ikasleei aukera ematea beste herrialde batzuetako irakasleen jakintzaz aberasteko.
- Irakaskuntzako metodologiaren gaineko esperientzien trukea sustatzea.
- Eskaintzen dituzten ikastaroen hedapena eta edukiera zabaltzera eta aberastera bultzatzea unibertsitateak.

Era berean, elkarren arteko truke harreman batean, UPV/EHUK beste erakundeko irakasleak hartzeko aukera du, gure unibertsitatean irakaskuntza eman dezaten, ikasketa planak eta irakaskuntza metodoak pixkanaka harmonizatzen joan ahal izateko, Europako goi mailako hezkuntza erakundearen arteko erlazio handiago baten bidez, Europako Unibertsitate Eremua sortzen laguntzeko.

#### 1.2. Formakuntza helburu duen mugikortasuna (AZPkoentzat, eta salbuespen moduan IRIentzat)

Langileen prestakuntzaren helburu zabalaren barruan kokatzen den deialdi honen xedea da langileak egonaldi labur bat egin dezala erakunde bazkidean. Egonaldi hori hainbat modutan dei daiteke: zerbitzu betekizun laburra, profesionalen behaketa, ikasketa bisitaldia, etab.

Era berean, Erasmus Gutuna daukaten Europako hainbat unibertsitatek nazioarteko asteak antolatzen dituzte (*Erasmus Staff Weeks*), Europako

unibertsitateetako AZPko langileek beren esperientziak partekatzeko aukera izan dezaten.

Mugikortasuna bi motatakoa izan daiteke: goi mailako hezkuntzako beste erakunde bazkide batera joateko mugikortasuna edo enpresa batera joateko mugikortasuna. Kasu batean zein bestean UPV/EHUK aukeratzen ditu Erasmus+ beka jasoko duten pertsonak. Programan parte hartzen duten pertsonak ez dute inola ere lan-harremanik izango erakunde hartzailearekin.

Hauek dira ekintza honen helburu zehatzak:

- Lan bizitza osoan ikasten jarraitzeko aukera eskaintzea UPV/EHUKo langileei.
- Hizkuntza trebetasuna hobetzea hirugarren hizkuntza batean.
- Unibertsitatea osatzen duten kidego guztien nazioartekotzea sustatzea, Europako Unibertsitate Eremuaren barruan.
- Jardunbide egokien behaketa erraztea, erakunde bazkideen lan moduei eta lan inguruneei dagokienez.
- Onuradunaren lanpostuak eskatzen dituen gaitasunak hobetzea.
- Unibertsitate bazkideekiko harremanak sendotzea.

**Oharra:** modalitate honen barruan ez dago sartuta biltzarretara, hitzaldietara edo izaera orokorreko beste edozein gertaeratarara joatea, ezta jarduera helmugako antolakundearekin hitzartutako lan-plan jakin baten arabera (*Mobility Agreement*) antolatzen ez denarekin ere. Euskara, Kultura eta Nazioartekotze Errektoreordetzak proposamena ebaluatu eta deialdiaren xedearekin bat datorren zehaztuko du.

## 2. Parte hartzeko baldintzak

### 2.1. IRIek eta AZPk bete beharreko baldintzak

1. Eskatzaileak Erasmus+ programan parte hartzen duen herrialdeko nazionalitatea izan behar du, edo beste herrialde batzuetakoa, azken kasu horretan, eskatzaileak egiaztatu beharko du baduela Espainian bizitzeko baimena mugikortasuna egingo duen aldirako.
2. Eskatzaileak zerbitzu harremana izan behar du UPV/EHUrekin edo erakunde horri atxikitako zentro batekin, dela funtzionario moduan dela lan kontratudun moduan, eta zerbitzu aktiboan egon behar da, bai eskaera egiten duenean bai mugikortasuna egiten duenean.
3. Interesatuak halako kasuetarako eskatu ohi den lekualdatze lizentzia kudeatu beharko du, eta ontzat eman beharko diote.

4. Interesatu guztiek **atzerriko** hizkuntza baten, gutxienez, B1 jakite maila dutela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko dute.<sup>1</sup>  
Irakaskuntzako Mugikortasunari dagokionez, helmugako unibertsitateak hizkuntza zehatz baten jakite maila altuagoa eska dezake (2a eta 2b eranskinak). Horrela izanez gero, interesatuak maila horren ziurtagiria aurkeztu beharko du.
5. Jatorriko eta helburuko erakundeek onespena eman beharko diote interesatuak egonaldia egin aurretik aurkeztu beharko duen irakaskuntza programari (*Mobility Agreement* - I. eranskina).
6. Irakaskuntza helburu duen irakasleen Erasmus+ mugikortasunaren oinarria dira parte hartzen duten erakundeek sinatu beharreko alde biko hitzarmenak. Unibertsitate biek ez badute sinatu hitzarmenik mugikortasuna EGIN AURRETIK, ezingo da egin.
7. Helburuko unibertsitatearen eta UPV/EHUren artean ezin da egon 5.000 km baino gehiago.

Ezingo dituzte eskatu deialdi honek araututako laguntzak egoera hauetakoren batean dauden pertsonak:

- Epai irmoz kondenatuta daudenak dirulaguntza edo laguntza publikorik jaso ezin izatera.
- Dirulaguntzaren bat itzultzera behartuta egonik, diru guztia itzuli ez dutenak.
- Erabaki irmoaz zigortuta daudenak dirulaguntzarik jaso ezin izatera, legearen arabera.

Eskaerarekin batera zinpeko adierazpen bat aurkeztuko dute eskatzaileek, beraiek sinatua, agertuz aurreko paragrafoan adierazitako ezein egoeratan ez daudela.

## 2.2. Helburuko erakundeak bete beharreko baldintzak

**Irakaskuntza helburu duen mugikortasuna (IRI)** bakarrik egin ahal izango da Erasmus Unibertsitate Gutuna daukan goi mailako hezkuntzako erakunde edo unibertsitate batera joateko, betiere erakunde horrek IRIak trukatzeko hitzarmen bat badauka sinatuta eta indarrean 2021/22 eta 2022/23 ikasturteetarako eskatzailea atxikita dagoen UPV/EHUko ikastegiarekin.

**Prestakuntza helburu duen mugikortasuna (IRI eta AZP)** bakarrik egin ahal izango da Erasmus+ Unibertsitate Gutuna daukan goi mailako hezkuntzako erakunde edo unibertsitate batera joateko, edo horretarako aurkeztuko diren enpresetako batera.

<sup>1</sup> CRUEren Egiaztatze Batzordeak eta ACLES elkarteak ontzat emandako ziurtagiriak onartuko dira (ikusi ondorengo esteka), bai eta UPV/EHUko irakasleek hizkuntza ez-ofizialetan irakasteko gaitasuna egiaztatzen duen agiria ere:

<https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/hizkuntza-gaitasunaren-akreditazioa>

<https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/eleoniztasun-plana-probak>

### 3. Aurreikusitako jarduerak

Mugikortasuna burutu beharko da azken ebazpena argitaratzen denetik (ikus egutegia) 2022ko uztailaren 31ra (**2021/22 ikasturtea**) edo 2022ko irailaren 1etik 2023ko uztailaren 31ra, egun horiek barne (**2022/23 ikasturtea**).

Egonaldiak, oro har, bost (5) egun baliouduneko iraupena izango du. Bi egun eta bi hilabete arteko egonaldiak egiteko eskaerak onartzen dira, nahiz eta finantzatu den gehieneko iraupena bost eskola egun osokoa izan. Bost egun baino gutxiagoko egonaldiak salbuespena izan behar dira.

Irakaskuntzarako mugikortasunean **astean gutxienez zortzi eskola ordu** eman behako dira (egonaldia aste bat baino laburragoa denean baita ere), harrera ikastegiaren titulu bat eskuratzera zuzendutako ikasketa planeko irakasgaietan.

### 4. Aurreikusitako finantzaketa

#### 4.1. Europako finantzaketa

Langileek Europako dirulaguntza bat jasoko dute beste herrialdera joateko bidaiak eta egonaldiko mantenu gastuak ordaintzen laguntzeko, SEPIEk ezarritako irizpideei jarraituz. Laguntza bi motatakoa da:

- a) Bidaiaren gastuetarako laguntza, distantziaren arabera dena.
- b) Mantenu gastuetarako laguntza, egonaldiaren iraupenaren eta eskatzailea joango den herrialdearen arabera dena.

- a) **Bidaia gastuetarako** laguntza kopuru jakin bat da, kalkulatu dena lan lekuaren eta kasuan kasuko jardura egingo den lekuaren arteko distantziaren arabera, EACEAk denen esku jarritako tresna informatiko bat **erabiliz**:

[http://ec.europa.eu/programmes/erasmusplus/tools/distance\\_en.htm](http://ec.europa.eu/programmes/erasmusplus/tools/distance_en.htm)

| Distantzia                 | Zenbatekoa<br>(parte hartzaileko) |
|----------------------------|-----------------------------------|
| 10 eta 99 km bitartean     | 20€                               |
| 100 eta 499 km bitartean   | 180€                              |
| 500 eta 1999 km bitartean  | 275€                              |
| 2000 eta 2999 km bitartean | 360€                              |
| 3000 eta 3999 km bitartean | 530€                              |
| 4000 eta 5000 km bitartean | 820€                              |

- b) **Mantenu gastuetarako laguntza** EBk ematen duen laguntza indibiduala da, helburuko herrialdearen eta egonaldiaren iraupen egiaztatuaren arabera (gehenez bost egun).

**Oharra:** jardueren aurreko eguna eta jardueren biharamuna finantzatuko dira, baldin eta horren premia arrazoitzen eta dokumentuz egiaztatzen bada: igandean bidaiatzea astelehen goizean lan egin beharragatik / larunbatean bidaiatzea ostiralera arte lan egin beharragatik).

| Helburuko herrialdeak   | Laguntzen diru kopurua eguneko |
|---|--------------------------------|
| Danimarka, Erresuma Batua, Finlandia, Irlanda, Islandia, Liechtenstein, Luxenburgo, Norvegia eta Suedia   | 120€                           |
| Alemania, Austria, Belgika, Frantzia, Grezia, Herbehereak, Italia, Malta, Portugal, Txipre  | 105€                           |
| Bulgaria, Errumania, Eslovakia, Eslovenia, Estonia, Hungaria, Ipar Mazedonia, Kroazia, Letonia, Lituania, Polonia, Serbia, Txekiako errepublika eta Turkia. | 90€                            |

SEPIEk dirulaguntza gehigarriak emateko prozedura bat jarriko du desgaitasuna duten langileentzat. Laguntza horiek orokorrak baino handiagoak izan ahalko dira.

#### 4.2. Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzaren laguntza osagarria

UPV/EHUK laguntza osagarri bat emango du, eta laguntza hori erabili ahal izango da SEPIEk emandako laguntzaren zenbatekoa gainditzen denean, helmugako erakundera joateko eta handik itzultzeko garraioa ordaintzeko laguntza osatzeko, betiere garraioaren zenbatekoa, hori justifikatzen duten arrazoiak direla eta, EBk emandako gehieneko zenbatekoa baino handiagoa bada. Kasu horretan, nahitaezkoa izango da garraio publikoko gastuen egiaztagiria aurkeztea ostatutik unibertsitatera eta aireportura, bai eta autobusetako edo taxietako beste gastu txiki

justifikatu batzuk ere. Bidaia proposatutako ekintzaren daten barruan egin beharko da. Ez bada egiten data horien barruan, **ez da finantzatuko**. Ibilgailu pribatuen alokairua ez da aurkez daitekeen gastua.

### 4.3. Bidaia eta ostatua kontratatzea

Bidaiaren kontratazioak (txartela erostea) eta ostatuarenak baliogabetze aseguru bat izan beharko dute.

Onartutako laguntza ordaindu ahal izateko, onuradunek gastuen jatorrizko egiaztagiri indibidualak aurkeztuko dituzte (ez dira onartuko beste pertsona batzuk agertzen diren fakturak), egindako jarduerari eta deialdi honetan ezarritako helburuan duen eraginari buruzko txostenarekin batera, mugikortasuna amaitu eta hurrengo 30 egunetan.

Laguntza emateko baldintzak betetzen ez badira, diru kopurua itzuli egin beharko da, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuarekin bat etorritik (Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargurako dirulaguntzen bermeei eta itzulketei buruzko araubide orokorra arautzen duena eta kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen betekizunak, araubidea eta betebeharrak ezartzen dituena).

Laguntza esleitu zaion pertsonak ezin badu egin eskatutako mugikortasuna, idatzi bat aurkeztu beharko dio errektoreordeari, laguntzari uko egiteko arrazoiak azaltzeko. Halakoetan, esleitutako diru kopurua erabiliko da aukeratu ez diren eta interesgarriak diren eskaerentarako.

## 5. Norakoak

Deialdi honen 2. eranskinean agertzen dira UPV/EHUrekin irakaskuntzarako mugikortasun hitzarmena duten erakundeak, hitzarmena sinatzen duen unibertsitateko ikastegia, eta plaza bakoitzean bete beharreko baldintzak.

UPV/EHUko irakasle-ikertzaileek 2. eranskinean agertzen ez den lekuren bat aukeratzen badute, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak hitzarmen bat eskatuko du, irakasleak edo zerbitzuetako langileak bere ikastegiko koordinatzaileari aurkeztutako eskaeran oinarrituta, eta zuzenean jakinaraziko dio interesatuari mugikortasuna onartu zaion ala ez. Errektoreordetzak ez du bermatzen helburuko unibertsitateak hitzarmen hori onartuko duenik, ezta epe egokian erantzungo duenik ere.

UPV/EHUko irakasle-ikertzaileek 2. eranskinean jasotako lekuren bat aukeratzen badute, baina ez atxikita dauden ikastegiari dagokiona, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak hitzarmena sinatuta duen ikastegiari galdetuko dio onartzen duen ala ez beste ikastegi bati atxikitako irakasleak baliatzea hitzarmena. Hitzarmena sinatuta duen ikastegiak askatasunez erabaki ahal izango du bere hitzarmena ikastegiari atxikita ez dagoen irakasle batek baliatu dezakeen ala ez.

Unibertsitate biek ez badute sinatu hitzarmenik mugikortasuna EGIN AURRETIK, ezingo da egin.

## 6. Eskaera

Eskaerak indibidualak izango dira. Eskaera egiteko webgune hauetan argitaratuta dagoen eredu erabili beharko da:

IRI: <https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/deialdiak-irakasleak>

AZP: <https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/deialdiak-azp>

Ondo bete gabeko eskaerak ez dira hartuko kontuan akatsak zuzentzeko aldiaren ondoren.

Eskaerarekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

1. Helburuko erakundeak ontzat emandako behin-behineko lan programa (*Mobility Agreement for Teaching*). Agiri horrek egiaztatzen du helburuko unibertsitateak onartu egiten duela mugikortasuna. Dokumentua behar bezala bete beharko da, eta informazioa eman beharko da eskatzen den eremu guztietan. Onartuko da dokumentu sinatuaren irudi eskaneatua.
  - a. *Mobility Agreement for Teaching* delakoan aurrera eramango den PRESTAKUNTZA PROGRAMA sartuko da.
  - b. *Mobility Agreement for Training* delakoan egingo diren prestakuntza JARDUERAK sartuko dira. Ez da emango dirulaguntzarik ikerketa jardueretarako.
2. Interesatuak lan egiten duen IRI saileko zuzendariak edo AZP zerbitzuko buruak idatzitako aldeko txostena.
3. Ikastegi bateko IRIen eta AZPen kasuan: ikastegiko Nazioarteko Harremanetarako koordinatzaileak idatzitako aldeko txostena.
4. Atzerriko hizkuntza baten jakite maila egiaztatzen duen agiria (gutxienez B1).

## 7. Eskaerak aurkezteko epea eta era

Deialdia EHUTAULAN argitaratzen den egunean hasiko da eskaerak aurkezteko epea eta 2022ko martxoaren 10ean amaituko da, egun hori barne.

Eskaerak aurkezteko epea deialdia argitaratzen denean hasiko da eta zabalik egongo da kreditua agortu arte edo 2022/23 ikasturteko eskola-aldia amaitu arte. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 14.e) artikuluan adierazitakoaren arabera, eta bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin (erabaki horrek onartu egiten ditu interesatuak UPV/EHUrekiko harreman elektronikoetan identifikatzeko eta sinadura elektronikoa erabiltzeko jarraibideak, bai eta erakunde horretan lanean ari diren pertsonak identifikatu eta sinadura elektronikoa erabiltzekoak ere):

- **Eskaera aurkeztu behar da UPV/EHUko erregistro elektronikoaren bitartez:** <https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>. Bertan sartuta,



“Jasotzailea” atalean **Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errek → Nazioarteko Hedakuntza (U02000247)** aukeratu behar da. Horretarako, identifikazio elektronikorako sistema hauetakoren bat erabili behar da: Izenperen ziurtagiri digitala, UPV/EHUn txartela (Izenpe), NAN elektronikoa, edo Diruaren eta Zerga Ziguaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES).

- Era berean, eskaera aurkeztu ahal izango da sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoa eta, ohiz kanpoko kasuetan, erregistro gaitan laguntzeko UPV/EHUn bulegoetan, aurrez aurre. Erregistro gaitan laguntzeko UPV/EHUn bulegoetan aurkezten diren eskaerak eta dokumentuak digitalizatu egingo dira administrazio espediente elektronikoa sartzeko, eta jatorrizkoak interesdunari itzuliko zaizkio, interesduna funtzionarioaren aurrean identifikatu eta horrela jarduteko adostasun espresua adierazi ondoren, bat etorrita UPV/EHUn idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin. Erabaki horrek onartu egiten ditu gai hauei buruzko jarraibideak: erregistro gaitan laguntzeko bulegoak; eskaerak, idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez aurkeztea UPV/EHUn; eta funtzionario publiko gaituen erregistroa.

Eskaera presentzialki aurkeztekotan, helbide honetara jo:

IRI/AZPkoen mugikortasunerako Erasmus+ deialdia  
Gipuzkoako Campuseko Nazioarteko Harremanen Bulegoa  
Ignacio M<sup>a</sup> Barriola zentroa  
Elhuyar plaza, 1  
20018 Donostia

Eskaerak 39/2015 Legeko 66. artikulua adierazten dituen baldintza guztiak betetzen ez baditu, eta, hala dagokionean, 39/2015 Legeko 67. artikulua adierazitakoak edo aplikagarri den legeria espezifikoan eskatutako beste batzuk, interesatuari errekerimendua egingo zaio hamar eguneko epean falta zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko dokumentuak eramateko, eta adieraziko zaio ezen, hala egin ezean, eskaeran atzera egindakotzat joko dela, horretarako ebazpena eman ondoren, urriaren 1eko 39/2015 Legeko 68. artikuluan jasotako moduan (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legea).

## 8. Eskaerak Baloratzeko Batzordea

Hauek izango dira Eskaerak Baloratzeko Batzordeko kideak: Nazioarteko Mugikortasuneko zuzendaria, Nazioarteko Harremanetako Zerbitzuko burua eta teknikari bat. Teknikari hori batzordeko idazkaria izango da eta hitza izango du, baina ez botorik.

## 9. Eskaerak baloratzeko irizpideak

Ondo betetako eskaerak baino ez dira ebaluatuko, betiere helburuko erakundeak ontzat emandako lan programa aurkeztu badute.

Eskaerak plazak baino gehiago badira, irizpide hauen arabera baloratuko dira:

1. Lehenetsuna izango dute "Enlight" Unibertsitate Europarreko parte diren unibertsitateetako egonaldietarako eskaerek.
2. Ondoren, Erasmus+ programako edo aurreko Erasmus programako irakaskuntzarako edo formakuntzako mugikortasunetan lehen aldiz parte hartzen duten pertsonen eskaerak hartuko dira kontuan. Lehenetsiko dira deialdi hau argitaratzen den datan hitzarmena sinatuta duten unibertsitateetarako egin diren eskaerak.
3. Ondoren, baloratuko dira azken bost ikasturteetan<sup>2</sup> Erasmus+ eta Erasmus programen barruan irakaskuntza edo formakuntza mugikortasun gutxien egin duten pertsonen eskaerak. Lehenetsiko dira deialdi hau argitaratzen den datan hitzarmena sinatuta duten unibertsitateetarako egin diren eskaerak.
4. Berdinketa gertatuz gero, lehenetsuna izango dute atzerriko hizkuntzan hizkuntza trebetasun handiena egiaztatzen duten eskaerek, eta lehenetsuna izango dute lan plana idatzi den atzerriko hizkuntzei dagozkien egiaztagirak dituztenak.
5. Berdinketa ez bada hautsi, atzerriko bigarren hizkuntza batean maila altueneko ziurtagiria aurkezten duenak lortuko du plaza (gutxienez B1).
6. Berdinketa ez bada hautsi, UPV/EHUn lanean egun gehien daramana lortuko du plaza. Kasu horretan, bulegoak berdinketa egoera horretan dauden eskatzaileei soilik eskatuko die datu hori.

## 10. Erabakia

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordeak, batzordeak lehenetsitakoa aintzat hartuta, agindua emango du onartutako mugikortasunen zerrenda Nazioarteko Harremanen webgunean argitaratzeko, bai eta erreserben zerrenda ere.

Nolanahi ere, interesatu bakoitzari jakinarazpena bidaliko zaio, eskaeran adierazitako helbide elektronikora, eta 10 egun balioduneko epea emango da mugikortasuna onartzeko edo hari uko egiteko. Hautatuak izan ez diren interesatuen erreserba zerrenda Nazioarteko Harremanen webgunean argitaratuko da, eta ukoren bat egonez gero, bide hori erabiliko da zerrendako pertsonekin harremanetan jartzeko, zerrendako ordenari jarraituz.

Plazari uko eginez gero, deialdi honetan parte hartzeari uko egingo zaio behin betiko. Uko egiteak [nazioartekoak.staff@ehu.eus](mailto:nazioartekoak.staff@ehu.eus) helbidera bidaliko dira.

---

<sup>2</sup> 2017/18 ikasturtetik aurrera.

Behin mugikortasuna onartuta, onuradunak ez badu egiten eta ez badio esaten ezer Naziorteko Harremanen Bulegoari horretarako ezarritako datak baino hamar egun lehenago, hurrengo urtean ezingo du parte hartu mugikortasun deialdian.

### **11. Dirulaguntza ordaintzea**

Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da: lehenengo ordainketan jasoko da Europako laguntzaren %70 eta bigarrenean, jarduera egin eta gero, kitapena. Aipatutako bi ordainketak kudeatzeko tramiteei ekiteko, beharrezkoa izango da beherago aipatzen diren dokumentuak bidaltzea helbide honetara.

Josu Martínez ([nazioartekoak.ordainketak@ehu.eus](mailto:nazioartekoak.ordainketak@ehu.eus))  
IRI/AZPkoen mugikortasunerako Erasmus+ deialdia  
Nazioarteko Harremanen Bulegoa  
Bibliotekaren eraikina, 2. solairua  
Sarriena, z/g  
48940 Leioa (Bizkaia)

Lehen ordainketa egiteko, interesatua abiatu baino gutxienez hamabost egun lehenago, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

1. Irakaskuntza edo formakuntza mugikortasunerako dirulaguntzaren hitzarmenaren bi kopia (4. eranskineko dokumentua).
2. Bidaia txartelaren (hegazkinekoa edo bestelako garraiobidekoa) eta bidaia aseguruaren kopia.

Gastuen kitapena egiteko, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira egonaldia amaitzen denetik hilabeteko epearen barruan:

1. Egonaldiaren ziurtagiria (5. eranskina), informazio hori jasotzen duen UPV/EHUren edo helburuko erakundearen formatuan. Bertan zehaztuko da zein egunetan egin den jarduera, eta ziurtagiriaren data izan beharko da egonaldiaren amaierako data bera edo ondorengoa. Ziurtagiria jatorrizkoa izan behar da, zirriborrorik eta zuzenketarik gabe, eta helburuko erakundeko harrera ataleko zuzendariak sinatu eta zigilatu behar du.
2. Behin betiko irakaskuntza programa (1. eranskina), egonaldia hasi aurreko data izan beharko duena.
3. Bidaia gastuen kitapena (6. eranskina), eta mugikortasuna egin izanaren ordainagiriak (hegazkineratzeko txartelak, bestelako garraiobideen jatorrizko txartelak, fakturak).
4. EBren GALDETEGIA (*EU Survey*). Online bete beharko da hala egiteko gonbita jaso eta 30 egun naturaleko epearen barruan. Betetzen ez bada, Koordinazioaren eta Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak dirulaguntza bueltatzeko eskatu ahal izango du.
5. UPV/EHUren txostena, online betetzekoa.

## 12. Onuradunen betebeharrak

1. Langileak 10 egun izango ditu, mugikortasuna onartu zaiola jakinarazten diotenetik, plaza onartzeko edo hari uko egiteko. Horretarako mezu elektronikoa bat bidali beharko du helbide honetara:  
[nazioartekoak.staff@ehu.eus](mailto:nazioartekoak.staff@ehu.eus).
2. Mugikortasun ekintzetan parte hartuko duten langileek euren kabuz gestionatu beharko dute halakoetan eskatu behar izaten den lizentzia.
3. Aldaketa guztiak, batez ere egonaldiaren datei edo programan baja emateari dagozkienak, Josu Martinezi ([nazioartekoak.ordainketak@ehu.eus](mailto:nazioartekoak.ordainketak@ehu.eus)) eta Oscar Barberori ([oscar.barbero@ehu.eus](mailto:oscar.barbero@ehu.eus)) jakinarazi beharko zaizkie lehenbailehen.

Egonaldia egiteko lekua aldatzeko, Nazioarteko Harremanen Bulegoaren onospena beharko da aldeztu aurretik. Horretarako, mezu bat bidali beharko zaio Mugikortasuneko zuzendariari ([nazioartekoak.zuzendaria@ehu.eus](mailto:nazioartekoak.zuzendaria@ehu.eus)), eta aldaketa eskatzeko informazioa eta arrazoiak azaldu bertan.

4. Mugikortasun programan parte hartzen duen pertsonak bidaia aseguru bat izan beharko du, istripuetarako eta gaixotasunerako (COVID-19 barne) babes emango diona (arreta eta garraio medikoa eta aberriratzea).

Deialdian adierazitako oinarri eta/edo epeak ez betetzea, datuak ezkutatzea, aldatzea edo manipulatzeko emandako laguntza ezesteko, eteteko edo deuseztatzeko kausa izan daitezke, eta ordaindutako kantitateak itzuli beharra ekarriko luke.

Nazioarteko Harremanen Bulegoak beharrezko ikusten dituen dokumentu guztiak eskatu ahal izango dizkie bai onuradunei bai helburuko unibertsitateei, mugikortasuna deialdiaren xedearen arabera izan dela egiaztatzeko.

## 13. Errekurtsoak

Administrazio bideari amaiera emango dion erabaki honen kontra egiteko bide hauek erabil daitezke, baina inola ere ez aldi berean:

- a) Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, jakinarazpena jasotzeko epearen hurrengo egunetik kontatzen hasita. Administrazio errekurtso hori jarriz gero, eta errekurtsoa jarri eta hilabeteko epean erabaki espresurik jaso ezean, errekurtsoa ezetsitzat jo dela ulertuko da. Horrela gertatuz gero, beharago agertzen den b) letrako auzibidera jotzeko aukera egongo da. Presuntziozko ezespina gertatuz gero, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, presuntziozko ezespina gertatu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita (29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioarena, 46. artikulua).
- b) Bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hileko epea dago,

erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (uztailaren 13ko 29/1998 Legea, Administrazio Auzietako Jurisdikzioa Arautzen duena, 8.3 eta 46. artikulua).

Leioan, 2022ko otsailaren 14ean.

**M. Juncal Gutierrez Mangado**

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen  
Arloko Errektoreordea

## EGUTEGIA

|  |
|--|
| <b>Deialdiaren argitalpena eta irekiera:</b><br>2022.02.14                                 |
| <b>ZUZENDUTAKO zerrendaren argitalpena:</b><br>2022.03.23                                  |
| <b>BEHIN-BEHINEKO ebazpenaren argitalpena:</b><br>2022.04.25                               |
| <b>(Erreklamaziorik ez balego)<br/>BEHIN BETIKO ebazpenaren argitalpena:</b><br>2022.05.12 |

## ERANSKINAK

- 1.a. eranskina **Mobility Agreement for Teaching (IRAKASKUNTZA)**
- 1.b. eranskina **Mobility Agreement for Training (PRESTAKUNTZA)**
  
- 2.a. eranskina **IRAKASKUNTZARAKO plazak dituzten hitzarmenen zerrenda [2021/22]**
- 2.b. eranskina **IRAKASKUNTZARAKO plazak dituzten hitzarmenen zerrenda [2022/23]**
- 2.c. eranskina **PRESTAKUNTZARAKO plazak dituzten hitzarmenen Zerrenda [2021/22]**
- 2.d. eranskina **PRESTAKUNTZARAKO plazak dituzten hitzarmenen Zerrenda [2022/23]**
  
- 3.a. eranskina **IIPentzako eskaera orria [2021/22]**
- 3.b. eranskina **IIPentzako eskaera orria [2022/23]**
- 3.c. eranskina **AZPkoentzako eskaera orria [2021/22]**
- 3.d. eranskina **AZPkoentzako eskaera orria [2022/23]**
  
- 4. eranskina **Dirulaguntzaren hitzarmena**
- 5. eranskina **Egonaldiaren ziurtagiria**
- 6. eranskina **Bidai gastuen kitapena**
  
- 7. eranskina **Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzaren laguntza osagarria eskatzeko orria**